

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI), 2009KO AZAROA

Euskal AEko industri jarduera % 10 jaitsi da 2009ko azaroan


Aurreko hilabetearen, hau da, 2009ko urriaren aldean % 1,3 igo da

EUSTATen datuen arabera, eta lan-egutegi homogeneousari dagokionez, Euskal AEko industri produkzioa 2008ko ekainaren aldean % 10,0 jaitsi da 2009ko azaroan.

Aurreko hilabetearen, hau da, 2009ko urriaren aldean Euskal AEko industri produkzioa % 1,3 igo da baina estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean.

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabeteka

% hazkundea



(*) 2009ko urri-azaroko urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: Eustat

Sektoreen arabera bilakaera

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusienak sailkatu ostean, 2009ko azaroko indizearen bilakaera jaitsi egin da sektore guztietan, 2008ko azaroaren aldean: ekipamenduko ondasunak % 15,9 jaitsi dira, tarteko ondasunak % 10,9 jaitsi dira, energia % 4,7 jaitsi da eta kontsumo-ondasunak % 5,4; azken hauen beherakada, batez ere, kontsumo-ondasun iraunkorrek (-% 14,9) izandako gutxitzearen ondorioz eman da, kontsumo-ondasun ez iraunkorrek beherapen txikiagoa izan dutelako (-% 2,0).

2009ko azaroko hil arteko aldaketak, 2009ko urriaren aldean, positiboak izan dira industriako sektore handi guztietan. Salbuespen bakarra energiaren sektorea izan da, honek % 1,2 egin baitu behera. Ekipamenduko ondasunak % 1,8 igo dira, tarteko ondasunak % 1,2 gehitu dira, eta kontsumo-ondasunek, oro har, % 3,3 egin dute gora, kontsumo-ondasun iraunkorrek (% 2,8) eta kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek (% 3,4) izandako igoeren ondorioz.

Lurralde historikoen arabera bilakaera

Lurralde historikoen arabera, Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaerak negatiboak izan dira hiru lurraldeetan: Araban % 5,6 jaitsi da, Bizkaian % 11,2 eta Gipuzkoan % 11,1.

2009ko urritik azarora bitarteko tasak positiboak izan dira hiru lurralde historikoetan: Araban % 3,1 gehitu dira, Bizkaian % 0,7 eta Gipuzkoan % 1,1.

Taula:2009ko Azaroa. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%)

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	09Aza/08Aza	At/At-1 (1)	09Aza/09Urr	09Urr/09Ira
Indize orokorra: Euskal AE	-10,0	-22,1	1,3	1,2
Araba	-5,6	-25,1	3,1	2,2
Bizkaia	-11,2	-20,8	0,7	0,7
Gipuzkoa	-11,1	-22,0	1,1	1,3
Indizeak helburu ekonomikoka-				
Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	-5,4	-12,9	3,3	-0,9
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-14,9	-27,5	2,8	-0,2
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-2,0	-7,5	3,4	-1,1
Ekipo-ondasunak	-15,9	-26,1	1,8	1,9
Bitarteko ondasunak	-10,9	-26,6	1,2	0,0
Energia	-4,7	-7,2	-1,2	5,6

(1) t urteko urtariletik azken hiler arte metatutako aldiaren urtetik urterako aldaketa-tasa da, t-1 urteko aldi berberaren aldean

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp